

Mintzaldi zikloa aurkeztu da Iruñean Foru aldaketari buruz

IRUÑEA

Geronimo Ustariz Institutuak eta Eusko Ikaskuntzak mintzaldi ziklo bat antolatu dute heldu den asterrako, 'Foru aldaketaren 150. urtemuga' izeneko. Datorren astelehenean hasi eta ostralera arte iraongo du eta arratsaldeko 7.30etan izango dira egunero hitzaldiak.

Emilio Majuelo, Geronimo Ustariz Institutuko zuzendariak, Iosu Txueka erredakzio batzordekoak eta Tomas Urzainki Nafarroako Eusko Ikaskuntzaren lehendakariordeak aurkeztu zuten ziklo honen egitaraua. Iruñeko Hizkuntz Eskolako aretoa emango diren mintzaldiak Udala eta Vianako Printzea Erakundearen laguntzarekin prestatu dira.

Zikloari hasiera emango dion mintzaldia Joseba De La Torre Unibertsitate Publikoko irakasleak aurkeztuko duen gaia izango da, hain zuzen, 'Aldaketa gizarte-ekonomikoa Nafarroan, aintzina eta erregimen berriaren bitartean (1808-1868)'. Garai horretan komunitateko egoera orokorra azalduko du, bai gizarte ekonomia, bai legegia aztertuz.

Ramon del Rio, Barcelonako Unibertsitate Autonomoan dagoen historialari nafarrak eskainiko du bigarren mintzaldia, hilak

10, '1841. urteko Legearen aurretik Ondasun eta Fiskalitate nafarra' gaiari buruz. Asteazkenean, berriz, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den Josetxo Ortiz de Orruño izango da mintzaldi emango duena. Berak azalduko du '1839. urteko Legearen eragina Euskal Lurraldeetan'.

'Aginte, burujabetasuna eta Lege Hitzartua' gaiari buruz mintzatu da Ignacio Lakasta Zaragozako Unibertsitateko irakaslea ostegun arratsaldean. Eta mintzaldi ziklo honi bukaera emango diona Demetrio Loperena izango da, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Berak aztertuko duen gaia 'Lege Hitzartua Nafarroako lehen Autonomi Estatu-tuan' izango da.

Tomas Urzainkik aipatu zuen ihardunaldi hauekin bukatzen direla aurtengoa egin diren ekintzak Foru aldaketaren urtemuga ospatzeko. Lege honek izugarriko garrantzia izan zuela azpimarratu zuen, Nafarroako egitura juridikoa ordutik aurrera moldatu bait zuen.

Ihardunaldi hauek aurkezteaz gain, Iosu Txuekak, Geronimo Ustariz Institutuak atera berri duen aldizkariari buruz hitzegin zuen. 'Nekazal jabegoa gaur egungo Nafarroan' ikuspuntu desberdinetatik ikusita da aldizkaria aztertzen den gaia.



| | |
|--|---|
| 1 9 9 2 | |
| URTARRILA - ENERO 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 | OTSAILA - FEBRERO 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 |
| MARTXOA - MARCHO 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 | APRILA - ABRIL 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 |
| MAIATZA - MAYO 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 | EKAILA - JUNIO 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 |
| UZTAILA - JULIO 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 | AGOSTUA - AGOSTO 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 |
| IRAILA - SEPTIEMBRE 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 | URRIA - OCTUBRE 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 |
| AZARUA - NOVIEMBRE 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 | DISENBERA - DICIEMBRE 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 |

LANKIDE Aurrezki Kutxak 1992. urteko egutegia kaleratu du. Euskal Herriko txoko guztietako gazterien ereduari eusten dio Lankide Aurrezki Kutxak aurtengo egutegian, eta bestela, **CARLOS VILLAGRAN**ek egutegiari ateratako argazkia ikuskatu. Gazteak nortzuk diren ez dakigu, baina, egutegia polita dela, hortan ez dago dudarik.

Egunkaria-k urtebete

EGUNKARIA kalera atera zen atzo lehen urteurrena ospatzeko asmoz

150.000 ale berezi banatu zituen Euskal Herriko hiri eta herrietan

150.000 ale berezi banatu zituen atzo EGUNKARIAK Euskal Herriko zoko moko guztietan bere lehen urteurrena ospatzeko. Hiriburu zein herrietako kaleetan hirurogeitalau orrialdeko EGUNKARIA berezia izan zen guztion eskura, orain arte egindakoaren eta geroari begira geure proiektuen berri emateko.

DONOSTIA

'Abenduaren 6a, Egun Handia Euskal Herriarentzat' zioen EGUNKARIA sortu zen egunaren lehen urteurrena gogoratzeko iragarkia eta halaxe izan zen. Goizean goiz herrietako batzordeak lanean hasi ziren. Ehundaka euskaltzale eta laguntzaileek mahaiak ezarri zituzten herri eta hiriburuetako erdigune eta auzoetan urteurrenako alea jendearen eskura jartzeko.

EGUNKARIAren ale berezi honetan lehen urteari buruzko balantzea egitearekin batera, SIADECO Sozio-Ekonomi Ikerketa Elkarteak irakurleen artean egindako inkesta ere argitaratu da. Ikerketa lan honen emaitzen daturik aipagarrienak gure irakurle goaren osaketa eta ezaugarriak dira, batetik; eta beraiek geuk eskaintzen diegun produktuaz duten iritzia, bestetik.

Honen arabera, EGUNKARIAK 44.000 irakurle ditu. Irakurle kopurua berez garrantzitsua bada ere, bada beste faktore bat, inportantzia hau areagotu egiten duena: haietako % 37,1ek EGUNKARIA besterik ez du erosten. Eta % 20,2k gurea baizik ez du irakurtzen egunero. Datuok nahiko adierazgarriak dira, batez ere euskarazko egunkari batek lehen



EGUNKARIAren aleak herri guztietan izan ziren eskura.

VILLAGRAN



Aurreko egunotan kuestazioak egin dira.

UNIBERRIAK

egunkaria egundo izan ez eta beti ere erdal medioen atzean ibili beharko duela esan duenik baden.

Irakurlearen soslaia hauxe izango litzateke: gaztea, ikasia, euskaldun zaharra eta alfabetatua.

Atzo kaleratutako alean azaltzen zen beste atal batean irakurleek EGUNKARIAri buruzko duten iritzia

ageri da. Inpresioa, orokorrean, oso ona da: % 71,8k ondo erizten dio euskarazko egunkariari; % 8,2k oso ondo eta % 14,5ek, berriz, erdipurdi. Media nazionala eta zabala dela esaten dutenak gehiengo dira: % 20,9k EGUNKARIA erabat nazionala dela uste du; eta % 39,8k «neurri handi batean» nazionala dela dio.



Txema Monterorekin aldaketa geroan

Latzun

TXEMA MONTERO:

- ❑ "Sistema komunisten erorketatik zerbait ikasi behar baldin badugu, abangoardismoaren eta frontismoaren porrota da".
- ❑ "Negozietarako bidean ere instituzioetatik gehiago bultza daitekeela uste dut".
- ❑ "PNVko azken mugimenduak ulerzeko kontutan eduki behar da Ardanzaren suzesioa dagoela jokoan".

DURANGOKO AZOKAN SALGAI